XEDAPEN OROKORRAK

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

6335

EBAZPENA, 2011ko abenduaren 1ekoa, Euskadiko Prezioen Batzordearena, Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos SA (EuskoTren) enpresak ematen dituen zerbitzuen 2012. urterako tarifak onartzekoa.

Euskadiko Prezioen Batzordeak, 2011ko abenduaren 1ean egindako bilkuran hartu duen erabakiaren xedapen zatia argitaratzen da, guztiek jakin dezaten.

ERABAKIA

Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzan sarrera eman zaio Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos SA (EuskoTren) enpresak aurkeztutako eskariari. Eskari hori tren–, Larrainetako funikular– eta tranbia-zerbitzuen 2012. urterako tarifak berrikustekoa zen.

Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos SA (EuskoTren) enpresak ematen dituen zerbitzuei dagozkien tarifak prezioak kontrolatzeko araudiari loturik daude, «autonomia erkidegoko prezio baimenduak» modalitatean, ekainaren 7ko 7/1996 Errege Lege-Dekretuaren (ekainaren 8ko BOE, 139. zenbakia) 16.4 artikuluari jarraiki.

Euskadiko Prezioen Batzordeari dagokio eskumen hori otsailaren 2ko 35/2010 Dekretuak (otsailaren 16ko EHAA, 31. zenbakia) eta 2010eko ekainaren 15eko Aginduak (uztailaren 64ko EHAA, 128. zenbakia) xedatutakoaren arabera.

Aipatutako arauak ekonomia-oreka jakin bat lortzekoak dira. Gainera, bizitza-kostuarekiko prezioak osatzeko tresnak zaintzekoak ere badira.

2012. urterako aurkeztu diren tarifak berrikusteko espedientea aztertuta, tarifak nahikotzat jotzen dira eta zerbitzua ematearen kostu-egituraren barruko kontzeptuetara egokitzen direla uste da.

Horrenbestez, Euskadiko Prezioen Batzordeak honako hau erabaki du:

Lehenengoa.– Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos SA (EuskoTren) enpresak ematen dituen zerbitzuen 2012. urterako tarifak onartzea, Balio Erantsiaren Gaineko Zerga eta Bidaiarien Derrigorrezko Asegurua barne direla. Hona hemen kontzeptuak eta zenbatekoak:

a) Trenen tarifak.

	Joanaldia	Joan-etorria	10 Bonua	Hilekoa	Gaztea	Urtekoa
T-1	1,50	2,50	9,50	27,00	160,00	230,00
T-2	1,70	2,85	11,85	34,00	200,00	275,00
T-3	2,20	3,60	15,20	41,00	250,00	340,00
T-4	2,80	4,70	19,65	53,00	330,00	450,00
T-5	3,40	5,70	25,00	61,00	350,00	490,00
T-6	4,30	7,10	30,50	74,00	410,00	560,00
T-7	5,10	9,00	38,00	85,00	460,00	610,00
T-8	5,10	9,00	38,00	85,00	460,00	610,00
T-9	5,10	9,00	38,00	85,00	460,00	610,00
T-10	5,10	9,00	38,00	85,00	460,00	610,00
T-11	5,10	9,00	38,00	85,00	460,00	610,00
Ospitalea	0,10	0,20	0,70	1,00	6,50	9,00

Creditrans txartelaz ordaindutako bidaia 0,95ekoa izango da (Deusto-Lezama linea, T-1 tarifa).

b) Larrainetako funikularraren tarifak.

Joanaldia	Joan-etorria	Creditrans	Hilekoa
1,95	3,50	0,88	19,00

c) Tranbiaren tarifak.

Joanaldia	Joan-etorria	Creditrans/Bat	Hilekoa
1,40	3,80	0,70	26,00

d) Baterako txartelak: trena-tranbia (EuskoTran).

	Joanaldia	Joan-etorria	10 Bonua	Hilekoa	Gaztea
T-1	2,05	3,40	13,50	37,10	249,20
T-2	2,15	3,65	15,15	42,00	277,20
T-3	2,50	4,20	17,50	46,90	312,20
T-4	3,00	5,00	21,05	57,00	368,20
T-5	3,60	6,00	26,40	65,00	382,20
T-6	4,50	7,40	31,90	78,00	430,00
T-7	5,30	9,30	39,40	89,00	480,00
T-8	5,30	9,30	39,40	89,00	480,00
T-9	5,30	9,30	39,40	89,00	480,00
T-10	5,30	9,30	39,40	89,00	480,00
T-11	5,30	9,30	39,40	89,00	480,00
Ospitalea	2,25	3,80	15,65	42,70	281,75

e) Baterako txartelak: trena-metroa.

	10 Bonua	Hilekoa	Gaztea
T-1	----	21,60	136,00
T-2	9,48	27,20	170,00
T-3	12,16	32,80	212,50
T-4	15,72	42,40	280,50
T-5	20,00	48,80	297,50

f) Tarifa murriztuak.

Joanaldia Tarifa murriztuak	Tarifa murriztu unibertsaleko 10 Bonua	Gizatrans/Berezi
0,80	5,60	0,35

Bigarrena.– Erabaki honek 2012ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

Erabaki honek administrazio-bidea amaitzen du; beraz, bere aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dakioke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horretako salari, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hasi eta hilabete biko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abenduaren 1a.

Euskadiko Prezioen Batzordeko burua,
JOSÉ LUIS HUALDE MAYO.